



## Covid-19-ak pertsona guztiei kalte egiten die.

“Migrazioak” egitasmoaren gizarte proiektuaren ibilbidean lagun asko egin ditugu. Gaurko egoera berezi honetan oso interesgarria iruditu zaigu hauetako hainbati, berau nola bizi duten galdetzea, bai gure artean, bai beraien jatorrizko herrialdeetan ere. Horregatik leiho birtual hau irekitzea erabaki dugu, non, aldizka, gurekin “Migrazioak” proiektua osatu duten hainbat lagunekin izandako solasaldiak argitaratzen joango garen.

- **Mohamed Thiam**



Mohamed Thiam Dakarren jaio zen, Senegalen, eta 2010etik Euskal Herrian bizi bada ere, Ormaiztegin duela bi urtetik. Zumalakarregi Museoarekin elkarlanean aritu da "Migrazioak" proiektuko hainbat jardueratan. Maiatzaren 22an Lurdes Azpiazukin izandako solasaldia. Konfinamenduaren hamargarren astean.

### Solasaldiaren itzulpena

**Lurdes:** Kaixo arratsalde on Mohamed. Zer moduz zaude?

**Mohamed:** Kaixo arratsalde on. Ondo gaude.

**Lurdes:** Pozten naiz. Martxoaren 12tik Covid-ak sortutako Alarma Egoera dekretatu zenetik ezin izan duzu lanik egin. Pertsonalki, nola eragin dizu egoera honek?

**Mohamed:** Ondo gaude, etxean. Zaila da lana bilatzen ari garelako. Lanik ez dugunez etxean gaude, denak bezala.

**Lurdes:** Konfinamentuko hamargarren astea, zuek gainera ramadanean zaudete. Nola daramazute?

**Mohamed:** Egia esan ezin dugu lanik gabe edo atera gabe bizi. Ramadanean ondo gaude hemen asko ez dagoelako. Egunean zehar ez dugu jaten, gauetan bakarrik, baina ondo. Eta lanik gabe ezin ditugu gauza asko egin, baina ondo gaude.

**Lurdes:** 2000 urtetik Euskal Herrian bizi zara, baina zehazki Ormaiztegin bi urte daramatzazu.

**Mohamed:** Ez, ez, ez, 2010tik. 10 urte, 10 urte.

**Lurdes:** 10 urte ez duzula zure Senegaleko familia ikusi. Zer moduz daude han Senegalen?

**Mohamed:** Bai, ondo daude. Nire zain daude faltan botatzen nautelako.

**Lurdes:** Kezkatuta daudela suposatzen dut.

**Mohamed:** Bai, ni ere kezkatuta nago bakarrik telefonoz hitz egiten dugulako.

**Lurdes:** Zer desberdintasunak ikusi dituzu gure egoera eta Senegalen dagoena konparatuz? Nik dakidanez han pandemia motelago doa, ezta? Han prest zeuden pandemia iritsi baino lehen. Gainera, erreakzio azkar honek nazioarteko goraiamenak eragin ditu, ezta?

**Mohamed:** Bai, prest zeuden baina gutxi, hemen gertatu zen bezala. Hemen jende gehiago dago baina han beroa eta gazte asko dago. Motelago doa denok bezala han konfinumenduan daudelako, baina ez hemen bezala han pobrezi asko dago eta ezin dute egin. Gauez bakarrik egin ahal dute, arratsaldeko 8etatik goizeko 5tak arte.

**Lurdes:** Beraz, etxeratze-agindua dago... Eta ze jarrerakin jaso dute senegalarrek etxeratze agindua? Arazorik gabe betetzen dute? Zer esaten dizu zure familiak?

**Mohamed:** Bai, ados daude.

**Lurdes:** Eta nola ikusten duzu etorkizuna?

**Mohamed:** Hango etorkizuna? Gobernua ondo badoa dana ondo joango da.

**Lurdes:** Han beroa egotea abantaila da birusa ez zabaltzeko, ezta?

**Mohamed:** Bai beroari esker hainbeste ez dagoela diote. Kasu asko daude baina ez hemen hainbeste.

**Lurdes:** Edozer gehiago kontatu nahi duzu?

**Mohamed:** Hemen denbora asko daramazuela COVID-rekin eta oraindik ez dakizuela kudeatzen aipatzea gustatuko litzaidake.

**Lurdes:** Bai, hemen eta toki askotan. Ez dakite nola bukatu egoera honekin. Fase desberdinetan gabiltza eta egunero ikasten dugu.

**Mohamed:** Ados. Etxetik atera gabe gaude eta lana bilatu nahi dugu.

**Lurdes:** Ez zarete paseatzera joaten?

**Mohamed:** Bai, bai. Hasi gara paseatzen. Lan egiteko, lan egiteko.

**Lurdes:** Baldinbaitere! Zortea opa dizut benetan. Badakizu. Eskerrik asko parte hartzeagatik. Besarkada bat.

**Mohamed:** Eskerrik asko.

**Lurdes:** Zuri, benetan. Agur.

**Mohamed:** Agur.

